

2. Beintza-Labaien- Oiz-Donamaria-Donetztebe-Sunbilla-Lesaka-Arantza

“Pilota jokoak dantza baino nahiago dugu”, hala dio [Beintza Labaien](#) herriko frontoian dagoen harrian, argi utziz pilota jokoak Malerrekako herrixka honek duen garrantzia. (Egin klik [hemen](#) nola iritsi jakiteko). Plaza honetan eginen dugu bigarren ibilbidearen sakea, Malerreka eta Bortzirietako lurretan barrena Arantzaraino eramanen gaituena.



Orbela Aterpeak utzitako argazkia, Beintza-Labaien.



Labaiengo frontoia.

Beintza-Labaienen bezain errotuta dago joko luzea [Oitzen](#) ere. Gaur egun oraindik ere Laxoako partidak jokatzen dira bertan.



Laxoa partida Oitzko frontoian.

Donezteberako bidean, atsedean txiki bat egingo dugu [Donamarian](#), garai batean laxoa taldea eta kirolari ospetsuak zeuden tokian. Gaur egun, ordea, ezer gutxi geratzen da frontoi zaharretik.



Izaskun Juanenak utzitako argazkiak.

[Donezteben](#), Bear-Zana frontoi luzea ikus daiteke, berezitasun bat duena: eskuzko sistema baten bidez, ezkerreko hormaren zati bat errebote mugigarri bihurtzea ahalbidetzen zuen mekanismo bat du. 13. zenbakian burdinezko marka ikus daiteke, bi hormen arteko loturan. Pareta biratzeko idien laguntza beharrezkoa izaten zen.



Bear-Zana frontoiko pareta mugigarriaren marka ikusten da.
Argazkia: Orbela Aterpea, Beintza-Labaien.



Bear-Zana pilotalekua Doneztebe. Argazkia: Orbela aterpea (Beintza-Labaien)

Frontoi honen beste bitxikeria bat da frontis zaharraren pareta ez zela bertikala. Pixka bat okertuta zegoela pilotak errebotean altuera handiagoa har zezan.



Bear-Zana pilotalekuaren frontisa. Arazkia: Orbela Aterpea, Beintza-Labaien



Bear-Zana frontoia. Argazkia: Izaskun Juanena.

Pilota, frontoi eta plazetan ez ezik, eliza eta eraikinetako aterpeetan jokatzen zen. Horren adibide dira [Sunbilla](#) eta [Lesakako](#) udaletako arkupeak, herriko pilotaleku bihurtu zirenak.



Sunbillako Udaletxea. Argazkia. Angiz landetxea.



Sunbillako Udaletxeko arkupea. Angiz landetxea.

Azken sakea [Arantzan](#) egingo dugu, Bortzirietan. Garai batean Laxoa taldea zegoen herrian eta joko libreko partidak plazan jokatzeko ziren. Frontoia 1972an eraiki zen eta ezaugarri bitxi bat du: teilatutik habe bat zintzilik du. Batzuek diote arkitekturen sinadura popioa dela, berte batzuek berte teoria bat dute.



Arantzako frontoiko teilatutik habe bat zintzilik. Argazkia: Arantzako Aterpe.

Baliogarriak izan daitezkeen loturak:

Zer ikusi eta non egin otordu

Beintza-Labaien: [Beintzako Ostatua](#)

Donamaria: [Donamariako dorrea](#); [Donamaria'ko Benta](#)

Sunbilla: [Camping Ariztigain](#)

Arantza: [Arantzako Aterpea](#); [Burlada jatetxea](#)